


# ezagutzen al duzu Donostia?

## Plaza Berria

Konstituzio-Plaza hau al dugu Donostiako Plaza Zaharra? Hau dugu gaur hiriaren bihotza baina ez da Plaza Zaharra, Plaza Berria baizik.

Plaza Zaharra «Boulevard»ean zegoen eta dago: «erlojua» deitzen den leku horretan, lehen hori zen hiriaren erdigunea. Plaza Berria 1722. urtean egin zen arte.

Plaza Berria egin zen *Enbeltran* eta *Amasorrain* kaleetako etxeak botata. Dakigunez, hiru koartel zenden *Plaza Zarraren* inguruan eta normala denez eztabaidak izaten ziren militar eta hiritarren artean: eztabaida hauek urruntzeko, hiritarrentzat beste plaza bat egin zen. Lehengo plaza zahar hura gaur egungoaren antzekoa zen. 1813. urteko suteak dena erre eta ondoren, gaur ikusten dugun plaza



eder hau eraiki zuten.

Plaza Berria jarraitu zen deitzen. «*Plaza de la Constitución*» izena 1820. urtean ezarri zioten arte. Dena dela Udalak berriz. «*Plaza Berria*» (honela euskaraz) izena onartu zuen 1897.eko apirilaren 13an gaur arte erabaki hau atzera bota ez delarik. 1937. urtean «*Plaza del 18 de Julio*» bataiatu zuten, azkenik bere bigarren izenera itzuli da 1979. urtean: *Konstituzio*

*Plaza/Plaza de la Constitución.*

Abenduan eta urtarri-lean hainbat ospakizun egiten dira plaza eder eta paregabe honetan «*Santo Tomas*etako peria» abenduaren 21ean eta «San Sebastianetako danborrada» urtarrilaren 20an. Danborrada bezalako alaitasunezko egunek, gure plaza eta gure herria gorai patzen dituzte.

Bukatzeko, gu, donostiarron maisu izan den

Txirrita handiari utziko diot entzun eta ikasi nuen bere bertsoa:

«Jangoikuaren paolak dira illargiya eta euzkiya argitasuna bialdu zigun lembiziko egaztiya denbora ayetan usu omentzan, eta orain Donostiya gaur dan eunian onen inbiriz bizi da mundu guzfiya»

JOSU TELLABIDE

ARGAZKIA: IMANOL OTEGI

**HAMABOST**  
**Taberna**  
 Euskaldun giroa eta terraza aparta!

**MIRACRUZ**  
 Estudio eta karneterako argazkiak  
 ezkontza erreportaiak  
 Zaletuen argazkiak errebelatzen ditugu  
 Mirakruz, 19 - Gros • Tfnoa.: 281999 Donostia

**FL LEIZA**  
 Marrazki eta delineaio  
 akademia  
 Colon Pasealekua, 46 • Tfnoa.: 29 08 83

**HARATEGIA**  
**URDATEGIA**  
 S. MARTIN, 56